Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abenduaren 23a, ostirala — 242 — Viernes, a 23 de diciembre de 2022



## ANDOAINGO UDALA

### Langileria

*Abenduaren 28ko 20/2021 legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko erdi mailako bi teknikari plazei (Karrozeriako irakaslea LHIK eta Karrozeriako irakaslea LHIK, Lanbide eta bestelakoak) dagozkien hautaketa prozesua arautzeko oinarri espezifikoak.*

Andoaingo Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatetzak eskuordeturik, 2022ko abenduaren 14an, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

*Lehena:* Egonkortze-prozesuaren barruan, Karrozeriako irakaslea LHIK eta Karrozeriako irakaslea LHIK, Lanbide eta bestelakoak lanpostuetarako lehiaketaren deialdiaren oinarriak onartzea.

*Bigarrena:* Deialdi hau eta bere oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta laburpen bat *Estatuko Aldizkari Ofizialean*.

Bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo daiteke, Donostian dagoen Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, iragarki hau argitara ematen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hala ere, nahi izanez gero eta administrazioarekiko auzi-helegitearen aurretik, partikularrek berraztertzeko helegitea aurkeztu ahal izango dute, Udal Alkatearen aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Helegitea aurkezten den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean jakinarazpenik jaso ez bada, gaitzetsi egin dela ulertuko da.

Berraztertzeko helegitearen berariazko ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu ahal izango da Donostiako Epaitegian, jakinarazpena jaso edo argitaratzen den egunaren biharamunetik 2 hilabeteko epean, eta ebazpena isilbidezkoa bada, berriz, berraztertzeko helegitea aurkeztu den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta 7 hilabeteko epean.

Hautazko berraztertzeko helegitea aurkeztuz gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-helegiterik aurkeztu, berraztertzekoa berariaz edo isilbidez ebatzi bitartean.

Andoain, 2022ko abenduaren 14a.—Maider Lainez Lazcoz, alkatea. (8042)

*Abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko bi erdi mailako teknikari (Karrozeriako irakaslea LHIK eta Karrozeriako irakaslea LHIK, Lanbide eta bestelakoak) plazei dagozkien hautaketa prozesuak arautzeko oinarri espezifikoak.*

1. *Deitutako plazak.*

Administrazio berezia eskalako zerbitzu bereziak azpieskalako 2 plazarako deialdia egiten da, erdi mailako teknikari klasean, txanda irekiaren bidez, honela banatuta espezialitatearen arabera:

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

### Personal

*Bases específicas reguladoras del proceso selectivo de estabilización de empleo temporal derivados de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, correspondiente a dos plazas de técnico/a medio (Profesor/a carrocería CIP y Profesor/a carrocería CIP, Lanbide y otros).*

La Junta de Gobierno Local, por delegación de la Alcaldía, en sesión celebrada el día 14 de diciembre de 2022, adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

*Primero:* Aprobar dentro del proceso de estabilización las bases de convocatoria de concurso para las plazas de técnico/a medio de Profesor/a carrocería CIP y Profesor/a de carrocería CIP, Lanbide y otros.

*Segundo:* Publicar la presente convocatoria y sus bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y extracto en el *Boletín Oficial del Estado*.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación de este anuncio.

No obstante, si así lo desean y previo al recurso contencioso-administrativo, los particulares pueden presentar, ante la Alcaldía de este Ayuntamiento, Recurso de Reposición, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Se entenderá desestimado al mes de haberlo presentado sin recibir notificación alguna.

Contra la resolución expresa o tácita del recurso de reposición podrá presentar Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de Donostia-San Sebastián, en el plazo de 2 meses a contar desde el día siguiente de la notificación en caso de resolución expresa. Y contra la desestimación presunta por silencio administrativo en el plazo de 7 meses a contar desde el día siguiente a su presentación.

Si opta por presentar el recurso de reposición, no podrá presentar recurso contencioso-administrativo hasta que aquel sea resuelto expresamente o se haya producido su desestimación por silencio.

Andoain, a 14 de diciembre de 2022.—La alcaldesa, Maider Lainez Lazcoz. (8042)

*Bases específicas reguladoras del proceso selectivo de estabilización de empleo temporal derivados de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, correspendiente a dos plazas de técnico medio (Profesor/a carrocería CIP y Profesor/a carrocería CIP, Lanbide y otros).*

1. *Plazas convocadas.*

Se convocan 2 plazas de la subescala de servicios especiales de la Escala de Administración Especial, clase técnico medio, por el turno libre, de acuerdo con la siguiente distribución y especialidad:

EK\CV GAO-I-2022-08042

| *Plaza kopurua/N.º plazas* | *Lotutako lanpostuak/Puestos relacionados* | *Ezaugarriak/Características* |
|---|---|---|
| 2 | Karrozeriako Irakaslea LHIK / Profesor/a carrocería CIP | 2 P |
| | Karrozeriako Irakaslea LHIK, lanbide eta bestelakoak/ Profesor/a carrocería CIP, Lanbide y otros | 2 M |

Deialdiaren xede diren plazei lotutako lanpostuen funtzioak eta ezaugarriak II. eranskinean zehazten dira.

*2. Parte hartzeko baldintzak.*

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. atalean ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte.

2.2. Hau da langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa: 15,30 €.

2.3. Oinarri orokorretako 2.h) idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, eskola graduatua, LH1 edo baliokidea.

*3. Lanpostuak adjudikatzeko berariazko baldintzak.*

3.1. Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, euskararen 2 hizkuntza-eskakizuna eskatzen da. Nahitaezkotasun-data igarota du lanpostu batek eta bestean merezimenduzkoa.

3.2. Era berean, deialdi honen xede den plazei lotutako lanpostuak jakin aten berariazko betekizun hau du:

Garraioa eta ibilgailuen mantentzea Lanbide familiako goi mailako teknikaria. Garraioa eta ibilgailuen mantentzea Lanbide familiako ibilgailuen karrozeria arloko 3. Profesionaltasun ziurtagiria. Lehen mailako ofizial karrozeria (formatzaile gissa eskarmentua duela egiaztatu behar du).

Betekizun horiek egiaztatu beharko dira oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

*4. Hautaketa-prozesua.*

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehenengo zatia, lehiaketa: izangaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan ezarritako instantzia-kopurua baizik ez da baloratuko, puntuazioaren arabera ordenatuta.

Lehiaketa ez da baztertzailea izango, baina gutxienez puntu guztien % 25eko puntuazioa lortu beharko da, oinarri orokorren 9.1 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia, euskara-proba: Derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da 2. hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duen lanpostua lortu nahi duten izangaientzat. Borondatezkoa izango da merezimenduzko 2. hizkuntza-eskakizuna lortu nahi duten izangaientzat.

*5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.*

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoari jarraikiz emandako puntuen baturaren araberakoa izango da. Baremoa I. eranskinean dago jasota.

5.2. Bigarren zatia Gai edo Ez Gai gisa kalifikatuko da nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituzten pertsonentzat.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

Las funciones y características de los puestos asociados a las plazas objeto de la convocatoria vienen señalados en el anexo II.

*2. Requisitos de participación.*

2.1. Quienes aspiren a las plazas deben cumplir los requisitos establecidos con carácter general en el apartado 2 de las bases generales.

2.2. El importe de la tasa por la inscripción en las convocatorias para la selección de personal es: 15,30 €.

2.3. En relación a lo dispuesto en el apartado 2.h) de las bases generales, se exige la titulación de graduado escolar, FP1 o equivalente.

*3. Requisitos específicos para la adjudicación de puestos.*

3.1. En los puestos de trabajo asociados a las plazas objeto de esta convocatoria el perfil lingüístico exigido es el 2. El conocimiento del euskera es requisito con fecha de preceptividad vencida en un puesto, mientras que en el otro es meritorio.

3.2. Asimismo, los puestos de trabajo asociados a las plazas objeto de esta convocatoria tienen asignado el siguiente requisito específico:

Técnico/a superior de la familia profesional de transporte mantenimiento de vehículos. Certificado de profesionalidad 3 en carrocería de vehículos d ela familia profesional de Transporte y Mantenimiento de vehículo. Oficial 1.º carrocero/a (con experiencia acreditada de formador).

Los requisitos citados deberán ser acreditados de conformidad con lo establecido en la base 2 y 7 de las bases generales.

*4. Proceso selectivo.*

El sistema de selección será el de concurso y constará de dos (2) partes:

4.1.1. Primera parte, el concurso: consistirá en el examen y valoración de los méritos alegados y acreditados por las y los aspirantes en la instancia, por medio del sistema de autovaloración, y se efectuará asignando a cada uno de ellos los puntos que le correspondan con arreglo al baremo de méritos. Solo se valorará el número de instancias ordenadas por puntuación que se haya dispuesto en las bases generales que rigen la convocatoria.

El concurso no tendrá carácter eliminatorio, si bien será necesario obtener una puntuación mínima del 25 % del total de puntos, a los efectos de lo establecido en la base 9.1 de las bases generales.

4.1.2. Segunda parte, prueba de euskera: de carácter obligatorio y eliminatorio para las y los aspirantes que opten a la plaza con puesto de trabajo en el que es preceptivo el perfil 2. Será voluntario para las y los aspirantes que opten al puesto con perfil lingüístico 2 meritorio.

*5. Calificación del proceso selectivo.*

5.1. La calificación del concurso vendrá determinada por la suma de los puntos atribuidos con arreglo al baremo de méritos que se incluye como anexo I.

5.2. La segunda parte se calificará de Apto o No Apto para aquellas personas que opten a las plazas que llevan aparejado perfil lingüístico preceptivo.

5.3. La calificación final de las y los aspirantes vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en el total del proceso selectivo.

EK\CV GAO-I-2022-08042

6. *Lan-poltsa.*

Hautaketa-prozesu honetatik lan-poltsa bat sortuko da deitutako plaza kopurua gainditzen duten izangaien zerrendarekin, betiere hautaketa-prozesuan gutxienez 20 puntu lortzen badituzte. Lan-poltsa hori lanpostu berdinetan edo antzekoetan langile ez-iraunkorren beharrak betetzeko erabili ahal izango da. Lanpoltsaren funtzionamendua, udaleko poltsak kudeatzeko araudiak arautuko du. Hala ere, sortzen den poltsa udalak dituen eta indarrean dauden aurrekoen osagarria izango da.

7. *Lehentasun-klausula aplikatzea.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluaren ondorioetarako, artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko da, emakumeak azpiordezkatuta baitaude zerbitzu berezietako azpieskalan.

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: 80 puntu gehienez.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, baita deialdia egin duen administrazioan ere, aurrekoekin parekatutako kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo Lanbide-taldeei atxikitako lanpostuetan egindako zerbitzuengatiko esperientzia, baldin eta hautaketa-prozesuaren xede badira, arrazoia duen harremanaren izaera edozein dela ere –funtzionarioa edo lan-kontratuduna–.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

— Administrazio bereziko zerbitzu bereziko eskalako kategorian egindako zerbitzuengatik, edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioa barne, 0,0274 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

— Beste eskala, azpieskala edo kategoria batzuetan egindako zerbitzuengatik, C2 azpitaldean, administrazio publikoetan, 0,0137 puntu lan egindako egun bakoitzeko, baldin eta betetako lanpostuek zerikusia badute deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

a.2. Esperientzia espezifikoa:

Gehienez 20 puntu emango dira, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri, dagokion hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuengatik, baremo honen arabera:

— Administrazio bereziko eskalako zerbitzu bereziak azpieskalan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan, 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

— Beste eskala, azpieskala edo kategoria batzuetan, C2 azpitaldean deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuengatik, 0,00457 puntu lan egindako egun bakoitzeko, betiere, betetzen diren lanpostuek zerikusia badute deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

Erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura eginez egingo da zenbaketa.

b) Karrerako funtzionario edo lan-kontratuko funtzionario finko izateko prozeduretako titulazioak eta probak gainditzea. Gehienez 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1. Deitutako plazan sartzeko eskatzen den baino prestakuntza akademiko handiagoko maila batean (1) dagokion

6. *Bolsa de empleo.*

Del presente proceso selectivo se creará bolsa de trabajo con la lista de aspirantes que excedan del número de plazas convocadas, siempre que obtengan un mínimo de 20 puntos en el proceso selectivo, que podrá ser utilizada para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos idénticos o similares. El funcionamiento de dicha bolsa se regirá por la normativa de gestión de bolsas del ayuntamiento. No obstante, la bolsa que se cree será complementaria a las anteriores que tenga el ayuntamiento y estén vigentes.

7. *Aplicación de la cláusula de prioridad.*

A los efectos de la aplicación del artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se aplicará la cláusula de desempate prevista en el citado artículo al existir subrepresentación de las mujeres en la subescala de servicios especiales.

ANEXO I

BAREMOS DE MÉRITOS

De conformidad con lo dispuesto en las disposiciones adicionales sexta y octava de la ley 20/2021 de 28 de diciembre:

a) Experiencia: hasta un máximo de 80 puntos.

a.1. Experiencia general:

Se entiende por experiencia general, la experiencia por los servicios prestados en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, en puestos adscritos a los cuerpos, escalas, subescalas, opciones, especialidades o grupos profesionales asimilados a los anteriores que sean objeto del respectivo proceso selectivo, con independencia del carácter, funcionarial o laboral, de la relación de la que traiga causa.

Se valorará hasta un máximo de 60 puntos, de acuerdo al siguiente baremo:

— Por servicios prestados en la subescala de servicios especiales de la escala de Administración especial, en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, 0,0274 puntos por día trabajado.

— Por servicios prestados en otras escalas, subescalas o categorías, en el subgrupo C2 en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, 0,0137 puntos por día trabajado, siempre que los puestos desempeñados guarden relación con el contenido funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas.

a.2. Experiencia específica:

Se valorarán, hasta un máximo de 20 puntos, de manera específica, diferenciada y complementaria a la valoración de la experiencia general, los servicios prestados en la Administración convocante por el desempeño de puestos convocados en el respectivo proceso selectivo, de acuerdo al siguiente baremo:

— Por servicios prestados en la subescala de servicios especiales de la escala de Administración especial, en la Administración convocante, 0,00914 puntos por día trabajado.

— Por servicios prestados en otras escalas, subescalas o categorías, en el subgrupo C2 en la Administración convocante, 0,00457 puntos por día trabajado, siempre que los puestos desempeñados guarden relación con el contenido funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas.

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad.

b) Titulaciones y superación de pruebas en procedimientos de acceso a la condición de funcionario de carrera o laboral fijo. Se valorarán hasta un máximo de 20 puntos los siguientes méritos:

b.1. Por estar en posesión de un título correspondiente en un (1) nivel de formación académica superior al exigido para el

EK\CV GAO-I-2022-08042

titulua izateagatik, betiere, deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremurako egokiak diren titulazioak badira: 10 puntu.

A1/A2: Unibertsitate-masterreko edo doktoregoko titulazioa (Meces 3 eta 4 mailak).

C1: Unibertsitate-graduko titulazioa (Meces 2 maila).

C2: Batxilergoko titulua edo titulu teknikoa (Meces 1 maila).

AP: Derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu-titulua edo oinarrizko Lanbide-heziketako prestakuntza-zikloa.

b.2. Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (betekizun gisa egiaztatutakoaz bestelakoa), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremura egokitutako titulazioak badira: 7,5 puntu.

b.3. Prestakuntza-ikastaroak jasotzeko ordu kopuruagatik:

— Erakunde ofizialek (Herri Administrazioko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, elkargo profesionalak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak eta federazioak) deitutako eta emandako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin lotuta, puntu 1 harrerako ordu bakoitzeko, gehienez ere 20 puntu.

— Zeharkako prestakuntza, lanpostuaren funtzioak garatzeko interesari, berdintasunari, prebentzioari eta abarri buruzkoa, erakunde ofizialek emandakoa edo homologatutakoa (Administrazio Publikoko Eskola edo Institutuak, Administrazio Publikoak, Unibertsitateak, Elkargo Profesionalak, Mutualitateak, Fundazioak, Elkarteak, Federazioak), 0,5 puntu jasotze-ordu bakoitzeko, gehienez 20 puntu.

b.4. Deitutako lanpostuei lotutako lanpostuen funtzio-eremuarekin zerikusia duten prestakuntza-ikastaroak emandako ordu kopuruagatik, eta erakunde ofizialetan emandakoak (herri-administrazioko eskolak edo institutuak, herri-administrazioak, unibertsitateak, Lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) 1,34 puntu jasotze-ordu bakoitzeko, gehienez 20 puntu.

b.5. Karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko prozedura baten oposizio-fasea gainditu izanagatik, plaza lortu gabe, Administrazio Berezia zerbitzu bereziak azpieskalan deialdia egin duen Administrazioan, betiere Enplegu Publikoaren Eskaintza bidez egin bada eta deialdia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu bada: 10 puntu.

b.6. Administrazio berezia eskalako zerbitzu bereiak azpieskalako lanpostuak bitarteko edo aldi baterako betetzeko prozedura baten oposizio-fasea gainditu izanagatik, deialdia egin duen administrazioan eta deialdi hori dagokion aldizkari ofizialean argitaratu bada: 10 puntu.

b.7. Informatikako ezagutzak.

Informatikako ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu emanda gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

— Internet oinarrizkoa.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

acceso a la plaza convocada, siempre que sean titulaciones adecuadas al ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas: 10 puntos.

A1/A2: Titulación de máster universitario y/o doctorado, o equivalente (Niveles Meces 3 y 4).

C1: Titulación de grado universitario, o equivalente (Nivel Meces 2).

C2: Título de bachiller o Técnico, o equivalente (Nivel Meces 1).

AP: Título de graduado en educación secundaria obligatoria o Ciclo formativo de formación profesional básica, o equivalente.

b.2. Por estar en posesión de un título académico del mismo nivel que el exigido para el acceso a la plaza (distinto al acreditado como requisito), siempre que sean titulaciones adecuadas al ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas: 7,5 puntos.

b.3. Por la cantidad de horas de recepción de cursos formativos:

— Relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos u homologados por entidades oficiales (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios profesionales, Mutualidades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones), 1 punto por cada hora de recepción, hasta un máximo de 20 puntos.

— Formación transversal, en materia de interés para el desarrollo de las funciones del puesto, igualdad, prevención, etc. e impartidos u homologados por entidades oficiales (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios profesionales, Mutualidades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones), 0,5 punto por cada hora de recepción, hasta un máximo de 20 puntos.

b.4. Por la cantidad de horas de impartición de cursos formativos relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos en entidades oficiales (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios profesionales, Mutualidades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones), 1,34 punto por cada hora de impartición, hasta un máximo de 20 puntos.

b.5. Por haber superado, sin haber obtenido plaza, la fase de oposición de un procedimiento de acceso a la condición de personal funcionario de carrera o laboral fijo de la escala de Administración Especial, en la subescala de servicios especiales, en la Administración convocante siempre que haya sido a través de Oferta Pública de Empleo cuya convocatoria haya sido publicada en el *Boletín Oficial del Estado*: 10 puntos.

b.6. Por haber superado, la fase de oposición de un procedimiento para la cobertura interina o temporal de puestos de trabajo de la subescala de servicios especiales de la escala de administración especial en la administración convocante siempre que dicha convocatoria haya sido publicada en el BOLETÍN OFICIAL correspondiente: 10 puntos.

b.7. Conocimientos de informática.

Se valorarán los conocimientos informáticos, hasta un máximo de 20 puntos, a razón de 5 puntos por cada una de las siguientes certificaciones:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 básico.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 básico.

— Internet Básico.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 básico.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 nivel único.

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 avanzado.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

— Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartela ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazi den bezala. Modulu beraren bertsio desberdinak egiaztatzen badira, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenek oinarrizko maila ere egiaztatuta dutela joko da.

b.8. Euskararen ezagutza.

Euskara jakitea merezimenduzko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostuari lotutako plazan bakarrik baloratuko da. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten izangaiek 5 puntu lortuko dituzte fase honetan.

II. ERANSKINA

LANPOSTUEN FUNTZIO ETA EZAUGARRIAK
KARROZERIAKO IRAKASLEA LHIK

Konplementu osagarria: 17.

Konplementu espezifikoa: 12.705,77 €.

Funtzioak:

— Ibilgailuen oinarrizko mantentze-tailerreko monitorea:

1. Ikasleen bertaratzea eta puntualtasuna kontrolatzea.

2. Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanei buruzko eskola teorikoak eta praktikoak ematea.

3. Tailer mekanikoko makineria, ekipamendua eta erremintak behar bezala eta segurtasunez erabiltzen irakastea.

4. Monitore soziolaboralari ikasleek egindako ikaskuntza-lanak eta izandako gorabeherak jakinaraztea.

5. Begirale soziolaboralarekin batera, ikasleen bilakaera eta ikaskuntza ebaluatzea.

6. Tutoretzak egitea ikasleen amekin, aitekin edo tutoreekin.

7. Ikasleen praktiken jarraipena egitea.

8. Hierarkian goragokoa dena koordinazio-bileretara joatea.

— Beste zeregin batzuk:

9. Tailer mekanikorako beharrezkoak diren gai suntsikorren eskaerak, makinak edo erremintak eta ikasleak babesteko ekipamenduak egitea.

10. Ikasleak praktikatzeko desegiteko ibilgailuak erostea.

11. Albaranak eta egindako eskaeren fakturak baliozkotzea eta erregistratzea.

12. Tailer mekanikoan mantentze-lanak egitea: makineria eta ekipamendua egiaztatzea, garbitzea, koipeztatzea eta konpontzea (konpresorea, nahasgailua, jasogailua, lixagailua, etab.).

13. Ikastetxeko instalazioen oinarrizko mantentze-lanak egitea: ateak eta leihoak, armairuak, txorrotak, argiak eta abar behar bezala itxi eta ireki direla egiaztatuz.

14. Su-itzalgailuak eta suteen aurkako mantak behar bezala daudela egiaztatzea.

15. Bere kategoriari dagokion beste edozein zeregin egitea, baldin eta horretarako aldez aurretik instrukzioa egin bazaio.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 avanzado.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 avanzado.

— Internet Avanzado.

La superación de los módulos se acreditará mediante el sistema de certificación IT Txartela, según se ha indicado en las bases generales. En el caso de que se acrediten diferentes versiones de un mismo módulo, solo se valorará uno de ellos.

A efectos de esta convocatoria, a quienes acrediten el nivel avanzado se les considerará, asimismo, acreditado el nivel básico.

b.8. Conocimientos de euskera.

El conocimiento de euskera se valorará únicamente en el puesto de trabajo asociado a la plaza con requisito de perfil meritorio. Las y los aspirantes que acrediten el perfil lingüístico 2 obtendrán 5 puntos en esta fase.

ANEXO II

FUNCIONES Y CARACTERÍSTICAS DE LOS PUESTOS
PROFESOR/A CARROCERÍA CIP

Complemento de destino: 17.

Complemento específico: 12.705,77 €.

Funciones:

— Monitor/a taller mantenimiento básico vehículos.

1. Controlar la asistencia y puntualidad del alumnado.

2. Impartir clases teóricas y prácticas de mantenimiento básico de vehículos.

3. Enseñar la correcta y segura utilización de la maquinaria, equipamiento y herramientas del taller mecánico.

4. Comunicar al/la monitor/a sociolaboral las tareas de aprendizaje realizadas por el alumnado, así como las incidencias ocurridas.

5. Evaluar, junto al/la monitor/a sociolaboral, la evolución y aprendizaje del alumnado.

6. Realizar tutorías con madres, padre o tutores/as del alumnado.

7. Realizar el seguimiento de las prácticas del alumnado.

8. Asistir a reuniones de coordinación el el/la superior jerárquico/a.

— Otras tareas:

9. Realizar pedidos de materia fungible, maquinas o herramientas necesarias para el taller mecánico y equipos de protección individual para el alumnado.

10. Realizar la compra de vehículos de desguace para práctica del alumnado.

11. Validar albaranes, facturas de los pedidos realizados y registrarlos.

12. Realizar tareas de mantenimiento en el taller mecánico: comprobar, limpiar, engrasar y reparar maquinaria y equipamiento (compresor, mezcladora, elevador, lijadora, etc.).

13. Realizar tareas básicas de mantenimiento de las instalaciones del centro: comprobando el correcto cierre y apertura de puertas y ventanas, taquillas, grifos, luces, etc.

14. Verificar el correcto estado de los extintores y mantas contra incendio.

15. Efectuar cualquier otra tarea propia de su categoría que le sea encomendada y para la cual haya sido previamente instruido.

EK\CV GAO-I-2022-08042

KARROZERIAKO IRAKASLEA LHIK, LANBIDE ETA BESTELAKOAK

Konplementu osagarria: 17.

Konplementu espezifikoa: 13.283,31 €.

Funtzioak:

— Txapa eta automobil-pinturako monitorea:

1. Automobilaren txapari eta pinturari buruzko ikastaroko ikasgaien edukia ematea, prestatzea eta azaltzea, maila teorikoan eta praktikoan.

2. Tutoretzak egitea, begirale sozio-laboralarekin lankidetzan, eta talde-bilerak egitea ikasleen jarraipena egiteko.

3. Ikasleen bertaratzea eta puntualtasuna kontrolatzea.

4. Materialen, makinen eta erreminten inbentarioa egitea, eta ikastarorako behar diren materialak eta tresnak erostea.

5. Ikastarora bertaratutako ikasleen zuzenketa, ebaluazioa eta jarraipena egitea, eta ikasturtea amaitzean ikasle bakoitzaren azken txostena egitea.

6. Irakaskuntza-jarduerarekin lotutako dokumentuak egitea eta idaztea.

7. Arloaren programazioa, edukiak, jarduerak eta ebaluazioa egitea.

— Beste zeregin batzuk:

8. Begirale sozio-laboralarekin elkarlanean aritzea LHIKko eta INEMeko ikasleekin praktiketako kontratuak formalizatzeko tailerrak kudeatzen eta bilatzen.

9. Lantegiko makineriaren eta instalazioen mantentze-lanak egitea.

10. Bere kategoriari dagokion beste edozein zeregin egitea, baldin eta horretarako aldez aurretik instrukzioa egin bazaio.

PROFESOR/A CARROCERÍA CIP, LANBIDE Y OTROS

Complemento de destino: 17.

Complemento específico: 13.283,31 €.

Funciones:

— Monitor/a chapa y pintura automóvil:

1. Impartir, preparar y explicar el contenido de las materias del curso de chapa y pintura del automóvil, a nivel teórico y práctico.

2. Realizar tutorías, en colaboración con el/la monitor/a socio-laboral, y reuniones de equipo para el seguimiento del alumnado.

3. Controlar la asistencia y puntualidad del alumnado.

4. Elaborar el inventario de materiales, maquinaria y herramientas y comprar los materiales y el utillaje necesario para el curso.

5. Corregir, evaluar y realizar el seguimiento de los alumnos asistentes al curso, y elaborar el informe final de cada alumno al finalizar el curso.

6. Elaborar y redactar documentos relacionados con su actividad docente.

7. Realizar la programación, contenidos, actividades y evaluación del área.

— Otras tareas:

8. Colaborar con el monitor socio-laboral en la gestión y búsqueda de talleres para la formalización de contratos en prácticas con los alumnos del CIP y del INEM.

9. Llevar a cabo el mantenimiento de la maquinaria del taller, así como de sus instalaciones.

10. Efectuar cualquier otra tarea propia de su categoría que le sea encomendada y para la cual haya sido previamente instruido.

EK\CV GAO-I-2022-08042